En este sentido, el edificio de vivienda en edificio de más de dos viviendas unifamiliares adosadas o vivienda unifamiliar adosada (tipo C), descrita en el punto 6 del artículo 1.3.1.8. "Definición y clases" del presente documento, tendría el carácter de edificio único.

4. La intercomunicación de los edificios exclusivamente a través de las plantas de sótano destinadas a aparcamiento, supondrá la constitución, a partir de la planta baja y hacia plantas superiores, de tantos edificios como cuerpos edificados cumplan las dos condiciones señaladas en el punto 2 de este artículo.

1.5.1.3. artikulua. Eraikin bakarria

1. Arautegi honen ondorioetarako, eraikin bakarria da alboan beste eraikuntzarik ez duena; ez du albokorik izango, beraz, ez sotoan eta ez goiko solairuetan, eta eskailera, korridore, galeria eta abar bezalako sarbide erkiderik ere ez du izango beste edozein eraikini dagokionez.

2. Eraikin bi atxikitzen badira, euren perimetroaren puntu batean (edozein solairutan) bakarrik izanda ere, horiek elkarren alboko eraikintzat hartuko dira hirigintza ondoreetarako eta ez eraikin bakar-tzat, nahiz eta egitura, sarbide eta arkitekturaren gainerako elementuak guztiz independenteak izan.

*2. atala. Lurzatiaren parametroak eta baldintzak***1.5.1.4. artikulua. Mugak**

1. Lurzatia mugatzen duten lerro perimetralak dira mugak.

2. Lurzatiaren eta horrek aurrean duen bide edo toki ireki publikoaren arteko muga egiten duena da aurreko muga; eta gainontze-koak alboetako mugak dira. Horien artean, atzeko muga aurrekoaren kontrako tokian dagoena da.

3. Lurzatiak bide edo toki ireki publiko bat baino gehiago ukitzen dituen mugak baditu, guztiak aurreko mugatzat joko dira.

1.5.1.5. artikulua. Mugen gehieneko eta gutxieneko neurriak

1. Mugen gehieneko eta gutxieneko neurriak Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan ezarritakoak dira edo lurzatiaren muga bat edo gehiagorentzako garatuko diren planek ezarritakoak.

2. Ezarritako parametroak betetzen ez dituzten loteak sortzen dituzten lurzatiak ezingo dira banandu edo gehitu.

1.5.1.6. artikulua. Gutxieneko eta gehieneko lurzati eraikigarria

1. Hiri antolamendurako plan orokor honek edo arauak garatuko dituzten planek lurzoru mota guztietarako ezarritako azalera izango da gutxieneko lurzati eraikigarria. Beraz, aurretik dauden azalera txikiagoko lurzatietan ezingo da ezer eraiki.

2. Hiri antolamendurako plan orokor honek edo arauak garatuko dituzten planek lurzoru mota guztietarako ezarritako azalera da gehieneko lurzati eraikigarria. Beraz, aurretik dauden azalera handiagoko zatietan ezingo da ezer eraiki, eta derrigorrezkoa izango da banatzea edo lurzatiatzea.

1.5.1.7. artikulua. Lurzatiaren gehieneko eta gutxieneko azalera, lurzatiatze lanetarako

1. Lurzatiatzeetarako gutxieneko eta gehieneko lurzatia (edo besterik gabe, "gehieneko lurzatia" eta "gutxieneko lurzatia") plangintzak ezarritakoa izaten da eta kasuan kasuko plangintza tresna behin betiko onartu eta gero sortutako lurzati berri orok eduki behar dituen gutxieneko eta gehieneko azalera dira.

2. Bi parametro horiek betetzen dituzten lurzati guztiak izango dira eraikigarriak.

1.5.1.8. artikulua. Lurzati eraikietako lurzoruen banaketak

1. Eraikuntzaren bat duten finkak banantzerakoan, lehendik dauden eraikuntzek kontsumitu duten eraikigarritasuna adierazi beharko da. Eraikigarritasun osoa agortuta badago ezingo da zatirik banandu, banandutako zatia hornidura publiko baterako erabili ezean.

*3. atala. Eraikuntzak lurzatiaren izan beharreko kokapenaren parametroak eta baldintzak***1.5.1.9. artikulua. Bideen lerrokadura**

1. Bideen lerrokadura (edo lerrokadura, besterik gabe) erabilera publikoko bide edo espazio libreetarako lurren eta lurzati eraikigarrien arteko muga ezartzen duen lerroa da. Planeamenduak zehazten du lerrokadura.

2. Lerrokadura mota hauek bereizten dira:

- 1. mota: errepideen foru sareko bideen lerrokadura (jabari publikoko zona).

Artículo 1.5.1.3. Edificio aislado

1. A efectos de esta normativa, se entiende por edificio aislado aquél que no posea solución de continuidad o contigüidad con ninguna otra edificación en ninguna de sus plantas, ya sean de sótano, o elevadas, ni a través incluso de elementos de acceso comunes, tales como escaleras, corredores, galerías, etc.

2. El adoso de dos cuerpos edificatorios, aunque solo sea en un punto de su perímetro en cualquiera de sus plantas, supondrá que, a efectos urbanísticos, no se puedan considerar como edificios aislados, aún cuando posean sistema estructural, accesos y demás elementos arquitectónicos plenamente diferenciados.

*Sección 2ª. Parámetros y condiciones de la parcela***Artículo 1.5.1.4. Linderos**

1. Los linderos son las líneas perimetrales que delimitan una parcela.

2. Es lindero frontal el que delimita la parcela con la vía o el espacio libre público al que da frente, y linderos laterales los restantes. Dentro de estos últimos, lindero posterior es el opuesto al lindero frontal.

3. Cuando se trate de parcelas con más de un lindero en contacto con vía o espacio libre público, todos ellos tendrán la consideración de lindero frontal.

Artículo 1.5.1.5. Dimensiones máxima y mínima de linderos

1. Las dimensiones máxima y mínima de linderos son las establecidas por el presente Plan General de Ordenación Urbana, o por los planes que lo desarrollen, para uno o varios linderos de parcela.

2. No podrán formularse divisiones o agregaciones de parcelas que generen lotes que incumplan tales parámetros.

Artículo 1.5.1.6. Parcelas mínima y máxima edificables

1. La parcela mínima edificable es la superficie establecida por el presente Plan General de Ordenación Urbana —o por los planes que lo desarrollen— para cualquier tipo de suelo, de tal modo que las parcelas preexistentes de superficie menor no podrán ser edificadas.

2. La parcela máxima edificable es la superficie establecida por el presente Plan General de Ordenación Urbana —o por los planes que lo desarrollen— para cualquier tipo de suelo, de tal modo que toda parcela preexistente de superficie mayor no podrá ser edificada, siendo obligatoria su segregación o parcelación.

Artículo 1.5.1.7. Parcelas mínima y máxima a efectos de parcelaciones

1. Las parcelas mínima y máxima a efectos de parcelaciones (o, simplemente, parcela máxima y parcela mínima) son las establecidas por el planeamiento e indica las superficies mínima y máxima que debe y puede, respectivamente, poseer toda nueva parcela surgida con posterioridad a la aprobación definitiva del instrumento de planeamiento correspondiente.

2. Toda parcela que cumpla estos dos parámetros será edificable.

Artículo 1.5.1.8. Segregaciones de terrenos de parcelas edificadas

1. La segregación de fincas en que existiera alguna edificación deberá hacerse con indicación de la edificabilidad consumida por las construcciones existentes. Si la totalidad de la edificabilidad estuviera agotada, solamente será posible la segregación cuando la parte segregada se destine a una dotación pública.

*Sección 3ª. Parámetros y condiciones de la posición del edificio en la parcela***Artículo 1.5.1.9. Alineación viaria**

1. La alineación viaria (o, simplemente, alineación) es la línea señalada por el planeamiento para establecer el límite que separa los suelos destinados a viales o espacios libres de uso público de las parcelas edificables.

2. Se distinguen los siguientes tipos de alineación:

- Tipo 1: alineación viaria de la red foral de carreteras (zona de dominio público).

- 2. mota: ibilgailuentzako kaleen udal sareko bideen lerrokadura (espaloiak, aparkalekuak eta babes guneak barne).

- 3. mota: oinezkoentzako kale eta eremuen lerrokadura.

- 4. mota: berdeguneen (publikoen) lerrokadura.

3. Planoetan finkatu diren lerrokadurek kasuan kasuko lagapenak ekarriko dituzte, eta horiek udalak eta agiri honek zehaztutako jarraibide eta irizpideei jarraiki urbanizatuko dira. Lagapen hauek derrigorrezkoak eta doakoak izango dira, eta urbanizazioaren lana jabearen kontu egingo da.

1.5.1.10. artikulua. Lurzoruaren erreferentzia altimetrikoen definizioa

1. Lurzoruaren erreferentzia altimetrikoek lurzorutik gora eraikinak duen proiektzio bertikala zehazteko eta altuerak neurtzeko balio dute. Hiri antolamendurako plan orokor honetan ondoko erreferentzia altimetrikoak erabiltzen dira:

a) Sestra: planeamenduan bide publikoen luzetarako profiltzat ezarritako lerroa da, besterik adierazi ezean, bidearen ardatzaren pare dagoena. Jadanik eginda dauden bideetan lehendik dagoen profila hartuko da sestratzat, sestraren bestelako definiziorik ez badago.

b) Lurzoruaren berezko kota: urbanizatzeko obra gauzatu aurretik lurzoruko puntu bakoitzak duen altuera erlatiboa da.

c) Berdinketa kota: Hirigintza lanak gauzatzeko eta altuera neurtzeko +0 erreferentzia kotatzat erabiltzen den altuera da.

1.5.1.11. artikulua. Eraikuntzaren erreferentzien definizioa

1. Hiri antolamendurako plan orokor honetako erregulazioan eraikuntzako erreferentzia hauek erabiltzen dira:

a) Itxitura edo hesia: mugen gainean kokaturiko hesia, lursaila mugatzen duena.

b) Fatxadako plano: eraikitako eta eraiki gabeko espazio bertikala lurzoruaren gainetik bereizten dituen plano bertikala edo bertikalak. Barne hartzen ditu eraikinaren aurreko bistako eraikuntza elementu guztiak (irtenguneak, erlaitzak eta hegialak), lerrokadurekiko irtengune baimenduak salbu.

c) Eraikuntza lerroa: eraikinaren beheko solairuko fatxadak lurzoruarekin bat egiten duen lerroa. Aurrekoa edo albokoa izan daiteke, zein mugagara begira dagoen.

d) Mehelina eta mehelin fatxada: eraikuntza mugakidearekin partekatzen den horma, eraikuntza mugakidea ukitzen duena eta, alboko mugarekin bat eginez, lurzati bere mugakidearengandik bereizten duena.

e) Fatxadako lerroa, derrigorrezkoa eta gehienekoa: kasuan kasuko solairuaren arabera, eraikuntzak zein lerrotaraino iritsi behar duen edo iritsi daitekeen.

1.5.1.12. artikulua. Mugetarainoko tartea

1. Mugen banaketa fatxadako puntu bakoitzaren eta erreferentziako muga hurbilenaren arteko distantzia da, mugarekin perpendikularra den lerro baten gainean neurtua.

2. Gerta daiteke plangintzak, eraikuntzatik alboetako mugetaraino gorde beharreko tartea arautzean, neurri bat baino gehiago ematea. Halakoetan, lurzatiaren forma irregularragatik bereiztea zaila baldin bada, eraikinaren eta inguruko eraikinen artean distantziarik handiena hartuko da, funtzionalitate onena lortuko da eta lurzatiak al bait toki irekirik handiena izango du.

3. Sestraren azpiko eraikuntzek edo instalazioek ezingo dituzte okupatu, lurpean, mugetarainoko tarteari dagozkion espazioak, estali gabeko garajeetarako sarbideetako arrapalek salbu.

1.5.1.13. artikulua. Eraikinen artean utzi beharreko tartea.

1. Eraikinen artean utzi behar den tartea eraikinen fatxaden arteko distantzia da. Bete egin behar da distantzia hori, eraikuntzak lurzati berean edo aldamenekoetan daudenean; ez da bete behar, ordea, bideek edo beste espazio publikoek bereizten badituzte.

1.5.1.14. artikulua. Sakonera eraikigarria

1. Sakonera eraikigarriki adierazten du, zenbakiz eta ez irudien bidez, non kokatu behar den eraikin bateko barruko fatxada lerroa. Horretarako, fatxadako puntu bakoitzaren eta lerrokaduraren arteko distantzia perpendikularra zehazten da.

- Tipo 2: alineación viaria de la red municipal de calles de tráfico rodado (incluye aceras, aparcamientos y espacios de protección).

- Tipo 3: alineación de áreas y calles peatonales.

- Tipo 4: alineación de zonas verdes (públicas).

3. Las alineaciones marcadas en planos causarán las correspondientes cesiones, que se urbanizarán siguiendo las instrucciones y criterios que define el ayuntamiento y el presente documento. Estas cesiones serán obligatorias y gratuitas, siendo la urbanización por parte del propietario.

Artículo 1.5.1.10. Definición de las referencias altimétricas del terreno

1. Las referencias altimétricas del terreno sirven para determinar la proyección vertical del arranque del edificio desde el terreno, así como para realizar la medición de las alturas. El presente Plan General de Ordenación Urbana emplea las siguientes referencias:

a) Rasante: es la línea que señala el planeamiento como perfil longitudinal de las vías públicas, tomado, salvo indicación contraria, en el eje de la vía. En los viales ya ejecutados y en ausencia de otra definición de la rasante se considerará como tal el perfil existente

b) Cota natural del terreno: es la altitud relativa de cada punto del terreno antes de ejecutar la obra urbanizadora.

c) Cota de nivelación: es la altitud que sirve como cota +0 de referencia para la ejecución de la urbanización y medición de la altura.

Artículo 1.5.1.11. Definición de las referencias de la edificación

1. En la regulación del presente Plan General de Ordenación Urbana se emplean las referencias de la edificación que a continuación se enumeran:

a) Cerramiento o vallado: cerca situada sobre los linderos que delimita una parcela.

b) Plano de fachada: plano o planos verticales que, por encima del terreno, separan el espacio edificado del no edificado, conteniendo en su interior todos los elementos constructivos del alzado del edificio (salientes, cornisas y aleros), excepción hecha de los salientes permitidos respecto de las alineaciones.

c) Línea de edificación: intersección del plano de fachada de la planta baja del edificio con el terreno. Podrá ser frontal o lateral, según el lindero al que dé frente.

d) Medianería o fachada medianera: línea de edificación que es común con una construcción colindante, está en contacto con ella y separa una parcela de la colindante, coincidiendo con el lindero lateral.

e) Línea de fachada obligatoria y máxima: línea hasta la que debe o puede llegar la edificación según la planta de que se trate.

Artículo 1.5.1.12. Separación a linderos

1. La separación o retiro a linderos es la distancia, en cada punto del plano de fachada, entre ésta y el lindero de referencia más próximo, medida sobre una recta perpendicular a éste.

2. En aquellos casos en que el planeamiento establezca distintos valores de la separación entre la edificación y los linderos laterales, y cuando por la irregular forma de la parcela sea difícil diferenciarlos, se medirán las separaciones de modo que redunden en la mayor distancia de la construcción a las de su entorno, y en la mejor funcionalidad y mayor tamaño del espacio libre de parcela.

3. Las construcciones o instalaciones situadas bajo rasante no podrán ocupar en el subsuelo los espacios correspondientes a la separación a linderos, a excepción de las rampas de acceso a garaje descubiertas.

Artículo 1.5.1.13. Separación entre edificios

1. La separación entre edificios es la dimensión de la distancia que separa sus planos de fachada. Se habrá de cumplir tanto si las construcciones están en la misma parcela como en parcelas adyacentes, pero no cuando estén separadas por vías y otros espacios públicos.

Artículo 1.5.1.14. Fondo edificable

1. El fondo edificable señala, cuantitativa y no gráficamente, la posición en la que debe situarse la línea de fachada interior de un edificio, mediante la expresión de la distancia entre cada punto de aquélla y la alineación, medida perpendicularmente a ésta.

1.5.1.15. artikulua. Eraikuntzaren mugimendu eremua

1. Eraikuntzaren mugimendu eremua eraikuntza hori kokatu beharreko fatxadako gehieneko edo nahitaezko lerroek definitutako espazioa da. Irudien bidez adierazita dago P-5 "Eraikuntzaren baldintzak" planoetan.

*4. atala. Eraikinak lurzatia okupatzeko parametroak eta baldintzak***1.5.1.16. artikulua. Eraikuntzekin okupatzen den lurzorua**

1. "Lurzorua okupazio gisa" ulertzen da eraikinen batek okupatu dezakeen lurzatiaren azalera eraikigarria, plano horizontal baten gainean fatxadako planoen babesak osatzen duen perimetroaren barrukoa, alegia.

2. Horren zenbatekoa honela adieraz daiteke:

a) Zuzeneko erregulazioa: gehieneko okupazio koefiziente bat jarrita. Koefiziente hori azalera okupagarriaren eta lurzatiaren azalera eraikigarriaren arteko erlaziotik ateratzen da. Parametro hori eta kokapen baldintzen ondoriozko beste batzuk bateratuta okupazio txikiagoa ateratzen bada, azken hori aplikatuko da.

b) Zeharkako erregulazioa:

b.1 Modu osagarri edo eskusiboan, mugetarainoko banaketa parametroen eta sakonera eraikigarriaren bitartez.

b.2 Edo antolamendu planoetan grafikoki adierazita.

1.5.1.17. artikulua. Lurzatiaren azalera libre

1. Aurreko artikuluan ezarritako lurzati okupazio baldintzen aplikazioaren ondorioz eraiki gabe utzi behar den eremua da.

*5. atala. Eraikinen formaren parametroak eta baldintzak***1.5.1.18. artikulua. Eraikuntzaren gehieneko eta gutxieneko dimentsioak**

1. Eraikuntzaren gehieneko eta gutxieneko neurriak planeamenduak ezartzen ditu, eta horien barruan sartu eta mugatu behar da lurretik gorako eraikuntza, fatxadako planoek definitzen dutena.

1.5.1.19. artikulua. Jatorriko kota

1. Jatorriko kota plangintzak zehazten du eta altuera neurtzen non hasi behar den adierazten du. Fatxada bakoitzak eta behin betiko lurzorua bat egiten duten erdigunearen nibelazio kota hartzen da jatorriko kotatzat.

2. Eraikinaren beharizanak edo luraren ezaugarriak direla kausa, altuera mailakatu egin behar bada, eraikina osatzen duten gorputzetako bakoitzean bere aldetik neurtuz egingo da altueraren neurketa.

1.5.1.20. artikulua. Eraikinaren altuera

1. Jatorrizko kotatik erlaitzerainoko, hegalerainoko edo goiherainoko altuera unitate metrikoak erabiliz neurtuta eraikinak duen altuera da eta horien arabera definizio hauek izango ditugu:

a) Erlaitzaren altuera: azken solairuko (atikoak eta teilatupeak alde batera utzita) sabaia osatzen duen forjatuaren azpialdeak eta eraikinaren fatxadako planoak bat egiten duten lerroaino neurtzen dena.

b) Altuera, guztira: eraikineko goihabe altueraino neurtzen dena.

c) Hegalaren altuera: teilatu hegalarren muturreko puntu behe-neraino neurtzen dena.

2. Parametro hori gehieneko altuera, gutxieneko altuera edo altuera finko edo derrigorrezko gisa ezarri dezake plangintzak.

3. Altuera neurtzeko bi unitate erabiltzen direnean -solairu kopurua eta unitate metrikoa -, biak bete beharko dira.

1.5.1.21. artikulua. Eraikinaren profila edo solairu kopurua.

1. Eraikinaren profila plangintzak eraikuntzarako baimentzen duen solairu kopurua da. Honako hauek osatzen dute:

a) Sestra gaineko solairuen kopurua: eraikuntza batek urbanizatutako lurzorua sestraren gainetik dituen edo fatxada batera dituen solairu kopurua da.

Artículo 1.5.1.15. Área de movimiento de la edificación

1. El área de movimiento de la edificación es el espacio definido por las líneas de fachada máxima u obligatoria dentro del cual debe situarse la edificación. Queda señalada gráficamente en la serie de planos P-5 "Condiciones de la edificación".

*Sección 4ª. Parámetros y condiciones de ocupación de la parcela por la edificación***Artículo 1.5.1.16. Ocupación del suelo por la edificación**

1. Se entiende por ocupación del suelo la superficie de la parcela edificable susceptible de ser ocupada por la edificación, comprendida dentro del perímetro formado por la proyección de los planos de fachada sobre un plano horizontal.

2. Su cuantía puede señalarse por:

a) Regulación directa: mediante la asignación de un coeficiente de ocupación máxima, entendiéndose por tal la relación entre la superficie ocupable y la superficie de la parcela edificable. Si de la conjunción de este parámetro con otros derivados de las condiciones de posición se concluyese una ocupación menor, será ésta la de aplicación.

b) Regulación indirecta:

b.1 A través, de modo complementario o exclusivo, de los parámetros de separación a linderos y de fondo edificable.

b.2 O, gráficamente, en los planos de ordenación.

Artículo 1.5.1.17. Superficie libre de parcela

1. Es el área en la que no se puede edificar como resultado de aplicar la condición de ocupación de la parcela establecida en el artículo anterior.

*Sección 5ª. Parámetros y condiciones de forma de los edificios***Artículo 1.5.1.18. Dimensiones máxima y mínima de la edificación**

1. Las dimensiones máxima y mínima de la edificación son las establecidas por el planeamiento, dentro de las cuales debe inscribirse y circunscribirse la edificación, definida por los planos de fachada, que sobresalga del terreno.

Artículo 1.5.1.19. Cota de origen

1. La cota de origen se define en el planeamiento para servir de origen en la medición de la altura, considerándose como tal la cota de nivelación del punto medio de cada plano de fachada en su encuentro con el terreno definitivo.

2. Cuando deba escalonarse por las necesidades de la edificación o por las características del terreno en que se asienta, la medición de alturas se realizará de forma independiente en cada uno de los cuerpos que la compongan.

Artículo 1.5.1.20. Altura del edificio

1. Es la altura del edificio en unidades métricas medidas desde la cota de origen hasta la cornisa, el alero o la cumbrera, y en función de ellos se denominará:

a) Altura de cornisa: es la que se mide hasta la intersección de la cara inferior del forjado que forma el techo de la última planta, exceptuando áticos y bajocubiertas, con el plano de la fachada del edificio.

b) Altura total: es la que se mide hasta la cumbrera más alta del edificio.

c) Altura de alero: es la que se mide hasta el punto inferior del extremo del alero.

2. El planeamiento puede establecer este parámetro como altura máxima, altura mínima, o altura fija u obligada.

3. Cuando la altura se establezca en dos unidades de medición —número de plantas y unidades métricas—, ambas habrán de respetarse a la vez.

Artículo 1.5.1.21. Perfil de la edificación o número de plantas

1. El perfil de la edificación es el número de plantas de la edificación permitido por el planeamiento. Se compone de:

a) Número de plantas sobre rasante: es el número de plantas situadas por encima de la rasante del terreno urbanizado, o con frente a fachada, de una edificación.

b) Sestra azpiko solairuen kopurua: sestra gaineko lehenengo solairu konputagarriaren azpian dauden edo baimentzen diren solairuen kopurua da.

2. Parametro hori gehieneko solairu kopuru, gutxieneko solairu kopuru eta solairu kopuru finko edo derrigorrezko gisa ezarri daiteke.

3. Eraikinaren profila edo solairuen gehieneko kopurua honako zeinu hauen bitartez adieraziko da:

- n/m
- n(a)/m
- n(a edo b)/m
- n(a eta b)/m

Lehenengo zifrak ("n"), makurtutako barra baino lehenagokoak, sestraren gaineko solairuen kopurua adierazten du, zenbatu daitezkeen atikoak eta teilatupeak kontuan hartu gabe, eta ondokoak ("m"), barraren ostekoak, sestraren azpikoak.

Lehenengo zifraren ostean aukeran jartzen diren (a) eta (b) sinboloek atiko edo teilatupe zenbagarri bat baimentzen dela adierazten dute. Bi sinboloak "edo" bidez banantzen badira, horien kokapena alternatiboa dela esan nahi du. Horiek "eta" bidez banantzen badira, atikoa baimenduta dagoela eta horren gainean teilatupea ere baimenduta dagoela esan nahiko du.

1.5.1.22. artikulua. Eraikinen solairuak eta solairuen altuerak

1. Eraikin baten solairua jarduera bat aurrera eramateko egokitu den azalera horizontal erabilgarri eta estali oro da.

2. Solairuaren altueratzat hartuko da solairu bateko zoladura bukatuaren gainaldetik solairu bereko sabaia forjatuaren azpialderaino (edo sabai izuneraino) dagoen distantzia bertikala.

3. Honako solairu mota hauek daude:

a) Sotoa: eraikitako azaleraren ehuneko berrogeita hamar (50) baino gehiagok bere sabaia beheko oinaren kotaren azpitik duena da sotoko oina.

Altuera librea ezin da berrehun eta hogeita bost zentimetro (225 cm) baino gutxiagokoa izan.

b) Erdisotoa: azaleraren zati batean lurzoru plano a jatorriko kotaren azpitik eta sabaikoa kota horren gainetik geratzen dena da.

Erdisotoaren erabileraren araberakoa izango da altuera librea, baina, betiere, berrehun eta hogeita bost zentimetroko (225 cm) gutxieneko absolutua izango du.

Sestra gaineko solairutzat hartuko dira, ondorio guztietarako, sabaiko forjako goiko aldeko edozein puntu espaloiko edo lurzoruko sestratik metro batera (1) edo gehiagora duten erdisotoak.

c) Behea: eraikitako azaleraren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagoan (50) lurzoruko plano a jatorriko kota berdinean edo gehiagoan duena.

d) Solairua: beheko oinaren sabaiko forjaren gainetik dagoen oina. Solairuaren altuera librea erabileraren eta zona edo lur motaren ezaugarrien araberakoa izango da.

e) Atikoa: eraikinaren azkeneko solairua da, azalera eraikia gainerako solairuen azalera normala baino txikiagoa duenean eta bere fatxadak eraikinaren gainerako fatxada planoetatik bereizita dituenean.

f) Teilatupea edo estalipea: txapitula erakoa izan ohi den edo estalkiaren isurkiak inguratutako terrazak eduki ohi dituen solairua, azkeneko solairuko forjatuaren gainaldearen eta makurtutako estalkiaren eraikuntza elementuen azpialdearen artean kokatzen dena.

6. atala. Baldintza gehigarriak; hiri estetika eta eraikuntzaren kalitatea eta higieena

1.5.1.23. artikulua. Hirigintza antolamenduaren udal ordenantza osagarriak

1. Baldintza gehigarriek eta hiri eta eraikuntzen estetikari buruzkoak, baita eraikuntzaren kalitatearen eta higiearen diseinuarenek ere, hirigintza antolamenduaren udal ordenantza osagarrien bitartez garatu beharko dira.

2. Sekzio honetako hurrengo artikuluetan arautzen diren zehaztapenak behin-behinekoak izango dira behin betiko onartu arte.

b) Número de plantas bajo rasante: es el número de plantas existente o autorizado por debajo de la primera de las plantas sobre rasante computable.

2. Puede establecerse este parámetro como número de plantas máximo, número de plantas mínimo, y número de plantas fijo u obligado.

3. El número máximo de plantas o el perfil de la edificación se representará por medio de esta simbología:

- n/m
- n(a)/m
- n(a ó b)/m
- n(a y b)/m

La cifra anterior a la barra inclinada ("n") representa el número de plantas sobre rasante, excluidos los áticos y las bajocubiertas computables, y la posterior ("m") el número de plantas bajo rasante.

Los símbolos (a) y (b) —que, opcionalmente, se disponen a continuación de la primera de las cifras— señalan la autorización de un ático o una bajocubierta computable adicionales. Cuando se presentan ambos símbolos separados por una "ó" se entenderá que su disposición es alternativa. Cuando los mismos se presentan separados por una "y" se entenderá autorizado el ático y, sobre él, la bajocubierta.

Artículo 1.5.1.22. Plantas de los edificios y alturas de pisos

1. La planta de un edificio es toda superficie horizontal, practicable y cubierta, acondicionada para desarrollar en ella una actividad.

2. Se entenderá por altura de piso la distancia vertical entre la cara superior del pavimento terminado de una planta y la cara inferior del forjado de techo de la misma planta, o del falso techo si lo hubiere.

3. Existen estos tipos de plantas:

a) Sótano: es aquella en la que más de un cincuenta (50) por ciento de la superficie edificada tiene su techo por debajo de la cota de planta baja del edificio.

La altura libre no será inferior a doscientos veinticinco (225) centímetros.

b) Semisótano: es aquella en la que parte de su superficie tiene el plano de suelo inferior a la cota de origen y el plano de techo por encima de dicha cota.

La altura libre exigible será función de las condiciones propias del uso, con mínimos absolutos de doscientos veinticinco (225) centímetros para la altura libre.

Los semisótanos cuya cara superior del forjado de techo se encuentre, en cualquiera de sus puntos, a una distancia mayor o igual de un (1) metro respecto de la rasante de la acera o terreno, se consideran a todos los efectos plantas sobre rasante.

c) Baja: es aquella en la que más de un cincuenta (50) por ciento de su superficie edificada tiene el plano de suelo a una cota igual o superior a la de origen.

d) Piso o alta: planta situada por encima del forjado de techo de la planta baja. El valor de la altura libre de planta de piso se determinará en función del uso y de las condiciones particulares de la zona o clase de suelo.

e) Ático: última planta de un edificio cuando su superficie edificada es inferior a la normal de las restantes plantas y sus fachadas se encuentran separadas del resto de los planos de la fachada del edificio.

f) Bajocubierta o entrecubierta: planta, eventualmente abuhardillada o con terrazas rodeadas por el faldón de la cubierta, situada entre la cara superior del forjado de la última planta y la cara inferior de los elementos constructivos de la cubierta inclinada.

Sección 6ª. Condiciones adicionales de estética urbana y de calidad e higiene de la edificación

Artículo 1.5.1.23. Ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística

1. Las condiciones adicionales y referentes a la estética urbana y de las edificaciones, así como a las de diseño de la calidad y de la higiene de la edificación, deberán ser desarrolladas mediante las ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística.

2. Las determinaciones que se regulan en los artículos siguientes de esta sección tendrán carácter transitorio hasta que aquéllas sean aprobadas definitivamente.

1.5.1.24. artikulua. Fatxadetako irtenguneak eta sarguneak

1. Irtenguneak edo hegalkak dira eraikuntzako lerrotik ateratzen diren elementuak.

2. Hona hemen irtengune motak eta haien definizioak:

a) Balkoia: dagoen gelako zoladuratik ateratzen den barea, fatxadaren lerrokadurari dagokionez, forjatu edo plataforma baten bidez kanpoalderantz luzatzen dena. Gehienez ere ehun zentimetro (100 cm) zabal izaten da. Balkoi kontzeptuak ez du loturirik balkoiaren eraikuntza soluzioarekin eta babes elementuen diseinuarekin. Balkoia estalia edo estali gabea izan daiteke.

b) Terraza: itxi gabeko irtengunea da. Estalia edo estali gabea izan daiteke.

c) Begiratokia: bao bat da, berrehun eta berrogeita hamar (250) zentimetro baino luzera txikiagoa du, jasotzen duen gelako zoladuratik aterata kristaldun gorputz baten bidez kanpoalderantz luzatzen da eta fatxadatik ehun (100) zentimetro baino gehiago ateratzen ez den plataforma du.

d) Galeria: luzeran berrehun eta berrogeita hamar (250) zentimetro baino gehiago dauzkan begiratokia da.

e) Hegalkin itxia: fatxadatik irteten den elementua da, begiratoki eta galeria izan gabe, eta zein materialekin itxi diren alde batera utzita. Gehieneko neurriak galerietarako ezarritakoak izango dira.

3. Aurreko paragrafoan adierazitako neurriak 1.5.1.9. artikuluan ("Bideen lerrokadura") definitutako lerrokadurak oinarri hartuta baimentzen diren irtenguneetan soilik aplikatu daitezke. Mugetatik bananduta dagoen eraikuntzan, neurriak libreak izango dira, 1.5.1.12 "Mugen banaketa" eta 1.5.1.13 "Eraikinen artean utzi beharreko tartea" artikuluetan ezartzen diren banaketei kalterik egin gabe.

4. Gainera, aipaturiko lerrokaduratik ateratzen diren baimendutako irtenuneek hurrengo baldintzak beteko dituzte:

a) Hegalek oinplanoan duten proiektzioaren luzeraren baturak ez du gaindituko fatxada bakoitzaren luzeraren erdia.

b) Espaloiaren sestraren gainean gutxieneko altuera librea hirurehun eta berrogeita hamar zentimetrokoa (350 cm) izango da.

c) Irtengune guztietatik mugetara egongo den distantzia ez da hegala baino txikiagoa izango, ezta bi (2) metro baino txikiagoa ere.

5. Sartuta dauden terraza estalien sakonera ez da horien altuera nahiz zabalera baino handiagoa izango. Sakonera fatxadaren lerrotik neurtu behar da.

6. Azpizonetako ordenantzek eta esku-hartze esparruetako arau zehatzek beste parametro batzuk ezarri ahalko dituzte.

1.5.1.25. artikulua. Erlaitz eta hegaleen gehieneko irtengunea

1. Erlaitzek eta hegalek bideen lerrokaduraren gainetik eta, dago-kionean, etxadiko patioaren fatxadako lerroaren gainetik eduki dezaketen gehieneko irtengunea ez da ehun (100) zentimetrotik gorakoa izango, azpizona bakoitzaren ordenantzan edo kasuan kasuko antolamendu xehakaturako esparruen arau berezian mugaketa handi-goa ezartzen bada salbu.

1.5.1.26. artikulua. Altueraz gorako eraikuntzak

1. Erlaitz edota hegaleen gehieneko altueratik gora honako hauek eraiki ahal izango dira oro har:

a) Estalkiaren isurkiak. Horiek ezingo dira azken solairuko forjatuaren goiko ertzetik fatxadetan eta patioetan trazatutako planotik irteten eta gehienez ehunetik berrogeita hamarreko (50) malda izango dute. Horietan argi zuloak instalatu ahalko dira, forjatuaren barruan. Intradosetik eta estradosetik ezin izango dira irteten.

b) Eskailera kaxen eta igogailu etxolen erremateak. Horiek ezingo dute gainditu hirurehun eta berrogeita hamar (350) zentimetroko altuera osoa erlaitzaren altueraren gainetik.

c) Txapitulak, estalkipea argitzeko, betiere, ondoko baldintzak betetzen baldin badituzte:

c.1. Luzera osoak ezin izango du hegaleen ehuneko hamabost (15) gainditu.

c.2. Bakoitzaren luzera ez da bi metro eta erditik (2,5) gorakoa izango eta gehienez bi metro eta hogeita hamar zentimetro (2,30) izango ditu altueran bukatutako solairuaren forjatutik neurtuta.

Artículo 1.5.1.24. Salientes y entrantes en las fachadas

1. Se entiende por salientes o vuelos todos aquellos elementos que sobresalen de la línea de edificación.

2. Responden a los siguientes tipos y definiciones:

a) Balcón: es el vano que arranca desde el pavimento de la pieza a la que sirve, y que se prolonga hacia el exterior en un forjado o bandeja de saliente no superior a cien (100) centímetros de anchura respecto a la fachada. El concepto de balcón es independiente de la solución constructiva y del diseño de sus elementos de protección, y puede ser cubierto o descubierto.

b) Terraza: es el espacio entrante no cerrado. Puede ser cubierta o descubierta.

c) Mirador: es el vano, de longitud inferior a doscientos cincuenta (250) centímetros, que arranca desde el pavimento de la pieza a la que sirve, y se prolonga hacia el exterior en un cuerpo acristalado, cuya bandeja no sobresale de la fachada más de cien (100) centímetros.

d) Galería: es el mirador cuya longitud supera los doscientos cincuenta (250) centímetros.

e) Cuerpo volado cerrado: es el saliente en fachada no perteneciente a la clase de miradores y galerías, independientemente del tipo de material con que estén cerrados. Sus dimensiones máximas serán las establecidas para las galerías.

3. Las dimensiones señaladas en el párrafo anterior son solamente aplicables en los salientes permitidos sobre las alineaciones definidas en el artículo 1.5.1.9. "Alineación viaria". En la edificación separada de sus linderos, las dimensiones serán libres, sin perjuicio del cumplimiento de las separaciones establecidas en los artículos 1.5.1.12. "Separación a linderos" y 1.5.1.13. "Separación entre edificios".

4. Además, los salientes permitidos respecto a las alineaciones mencionadas cumplirán las siguientes condiciones:

a) La suma de la longitud de la proyección en planta de los vuelos no excederá de la mitad de la longitud de cada fachada.

b) La altura mínima libre sobre la rasante de la acera será de trescientos cincuenta (350) centímetros.

c) Todos los salientes se separarán de los linderos una distancia no menor que su vuelo ni inferior a dos (2) metros.

5. La profundidad de las terrazas entrantes cubiertas no será superior a su altura ni a su anchura. Esta profundidad se contará a partir de la línea de la fachada.

6. Las ordenanzas de las subzonas y las normas particulares de los ámbitos de ordenación pormenorizada podrán imponer parámetros diferentes a los indicados.

Artículo 1.5.1.25. Saliente máximo de cornisas y aleros

1. El saliente máximo de cornisas y aleros sobre la alineación viaria y, en su caso, sobre la línea de fachada al patio de manzana, no excederá de cien (100) centímetros, salvo mayor limitación en la ordenanza de cada subzona o en la norma particular de los ámbitos de ordenación pormenorizada correspondientes.

Artículo 1.5.1.26. Construcciones por encima de la altura

1. Por encima de la altura máxima de alero y/o cornisa podrán admitirse, con carácter general, las siguientes construcciones:

a) Las vertientes de la cubierta, que no podrán sobresalir respecto a un plano trazado desde el borde superior del forjado de la última planta en fachadas y patios con una pendiente máxima del cincuenta (50) por ciento. En ellas podrán instalarse lucernarios incluidos dentro de su forjado, no pudiendo salir ni de su intradós ni de su extradós.

b) Los remates de las cajas de escaleras y casetas de ascensores, que no podrán sobrepasar de una altura total de trescientos cincuenta (350) centímetros sobre la altura de cornisa.

c) Las buhardillas, para iluminar la entrecubierta, siempre que cumplan estas condiciones:

c.1. La longitud total no superará el quince (15) por ciento de la del faldón en que se encuentren.

c.2. La longitud de cada una de ellas no superará los dos metros y medio (2,5), y su altura máxima no superará los dos con treinta (2,30) metros, medidos sobre el forjado de piso terminado.

c.3. Fatxadaren linearekiko metro bat (1), gutxienez, atzeraemango dira.

c.4. Estalkietako maldak ehuneko hogeita bost (25) eta hogeita hamabost (35) artekoak izango dira.

2. Hala ere, finkatutako gehieneko altueratik gora ezingo da ezer eraiki, aireztapenerako edo kea kanporatzeko tximiniak edo berogailuaren eta aire egokituaren tximiniak izan ezik. Kasu horietan, haien funtzionamendu egokirako Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezartzen duen altuera izango dute, edo, bestela, eraikitze lanak ondo egiteak eskatu bezalakoak.

1.5.1.27. artikulua. Patioak

1. Etxadiko patioa.

a) Etxadiko patioa da etxadi itxi baten barruan dagoen espazioa, lehenengo solairutik, gutxienez, eraikita ez dagoena.

b) Neurriak Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan finkatu dira, P-5 "Eraikuntzaren baldintzak" izeneko planoan, barruko fatxaden lerroen definizioaren bitartez. Bestela, eraiki daitekeen gehieneko sakonera, lurzoruaren okupazioa eta barruko fatxadaren eta atzeko mugaren arteko gutxieneko tartea adierazita egongo dira.

c) Garapeneko planetan grafikoki definituta egongo da, P-5 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan.

d) Nolanahi ere, aipatutako baldintzak bete arren ehun (100) metro koadrotik beherako azalera duten patioak barruko patio edo argi patio izango dira, baita barruan hamar (10) metroko diametroko zirkulua hartu ezin dutenak ere.

2. Barruko patioa edo argi patioa.

a) Barruko patioa edo argi patioa da eraikinaren barrualdean irekitzen dena, bertara ematen duten gelei argia, argiztapena eta aireztapena emateko helburuarekin.

b) Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

b.1. Indarrean dagoen araudian araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezartzen diren neurriak beteko dituzte.

b.2. Sarbidea izan beharko dute ataritik, eskailera kaxatik edo eraikuntzako beste espazio komun batetik, hango derrigorrezko garbiketa eta zaintza ahalbidetzeko.

b.3. Hirigintzako arau hauetan ezarritako paramentuen arteko gutxieneko argia ezin da murriztu irtenuneekin; salbuespena: lehendik dauden eraikinetan igogailua jartzea, igogailua jartzeko beste kokalekurik ez badago. Hori guztia esparru juridiko pribatuaren erabili daitezkeen hirugarren pertsonen eskubide eta zortasun zibilei kalterik egin gabe.

b.4. Patioko zoladura hara gelak irekitzen dituen bizitokirik baxuenaren lurzoruaren mailan egongo da, gehienez.

b.5. Patioak sabaileiho edo argizulo zeharrargien bidez estali ahal izango dira, baldin eta elementu horiek inolako itxiturarik gabeko espazio perimetrala uzten badute patioko hormen eta babes elementuaren artean; horrela, gutxieneko aireztapen azalera ahalbidetuko da, patioak duenaren ehuneko berrogei (40) baino handiagoa. Kasu horretan, beharrezko neurri teknikoak hartuko dira, isolamendu akustikoari buruzko indarreko arauak betetzeko.

b.6. Paramentuen arteko distantziak osorik mantendu beharko dira patioaren altuera osoan; gehienez jota, hogeitaz (20) zentimetroko tantakina ahalbidetuko da estalkian.

b.7. Mugei atxikitako patioek aurreko baldintzak bete beharko dituzte; horretarako, muga aurreko paramentutzat hartuko da, eraiki barik egonda ere.

3. Fatxadara irekitako patioa.

a) Fatxadara irekitako patio edo kanpoko patio deritzo eraikinak fatxada lerroekiko daukan atzeraemangunearen ondorioz eratzen denari, atzeraemangunea metro eta erdi (1,5) baino gehiagokoa denean.

b) Arau bereziak edo, horrelakorik ezean, azpizonetako ordenantza orokorrek baimentzen baldin badute, gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

c.3. Se retranquearán un mínimo de un (1) metro respecto a la línea de fachada.

c.4. La pendientes de sus cubiertas estarán comprendidas entre el veinticinco (25) y el treinta y cinco (35) por ciento.

2. No obstante, por encima de la altura máxima total que se determine no podrá admitirse construcción alguna, excepto las chimeneas de ventilación o de evacuación de humos, calefacción y acondicionamiento de aire, con las alturas que, en orden a su correcto funcionamiento, determine el Código Técnico de Edificación y, en su defecto, el buen hacer constructivo.

Artículo 1.5.1.27. Patios

1. Patio de manzana.

a) Se denomina patio de manzana el espacio interior de la manzana cerrada, libre de edificación, al menos, desde la primera planta alta.

b) Sus dimensiones se establecen en el presente Plan General de Ordenación Urbana mediante la definición de las líneas de las fachadas interiores en el plano P-5 "Condiciones de la edificación", y/o mediante el señalamiento del fondo máximo edificable, la ocupación de suelo, y la separación mínima de la fachada interior al lindero posterior.

c) En los planes de desarrollo vendrá definido gráficamente en su plano P-5 "Condiciones de la edificación".

d) En cualquier caso, los patios que, respondiendo a estas características, tengan una superficie inferior a cien (100) metros cuadrados y aquéllos que en su interior no pueda inscribirse un círculo de diez (10) metros de diámetro, tendrán la consideración de patios interiores o de luces.

2. Patio interior o de luces.

a) Patio interior o de luces es el que se abre en el interior del edificio con el objeto de proveer de luces, iluminación y ventilación a las piezas habitables de los mismos.

b) Deberán cumplir las siguientes condiciones:

b.1. Sus dimensiones se ajustarán a la normativa vigente para viviendas de protección oficial de régimen general.

b.2. Deberán contar con acceso desde el portal, caja de escaleras u otro espacio común de la edificación, a fin de posibilitar la obligada limpieza y policía de los mismos.

b.3. Las luces mínimas entre paramentos establecidas por estas normas urbanísticas no podrán reducirse con salientes, excepto cuando se trate de la implantación de ascensores en edificios preexistentes que carezcan de los mismos, y siempre que no existan otras ubicaciones alternativas para su instalación. Todo ello sin perjuicio de eventuales derechos y servidumbres civiles de terceros que pudieran hacerse valer en el ámbito jurídico privado.

b.4. El pavimento del patio estará como máximo a nivel del suelo de la dependencia más baja que abra huecos a él y esté destinada a pieza habitable.

b.5. Podrán cubrirse con claraboyas o lucernarios traslúcidos, siempre que estos elementos dejen un espacio perimetral, desprovisto de cierres de cualquier tipo entre los muros de patio y el elemento de protección, que permita una superficie de ventilación mínima superior al cuarenta (40) por ciento de la del patio. En este caso, se adoptarán las medidas técnicas necesarias para el cumplimiento de las normas vigentes de aislamiento acústico.

b.6. Las distancias entre paramentos habrán de mantenerse íntegramente en toda la altura del patio, permitiéndose únicamente un goterón de cubierta de veinte (20) centímetros como máximo.

b.7. Los patios adosados a linderos cumplirán las anteriores condiciones, considerándose a estos efectos el lindero como paramento frontal, aunque no estuviese edificado.

3. Patio abierto a fachada.

a) Se denomina patio abierto a fachada o patio exterior al resultante por retranqueo respecto a las líneas de fachada, cuando este retranqueo es superior a un metro y medio (1,5).

b) Si la norma particular o, en su defecto, las ordenanzas generales de las subzonas lo autorizan, deberán cumplir estas condiciones mínimas:

b.1. Etxadiko patioa edo bide lerrokaduraren gainean irekitako patioa.

- Ezin du izan eraginik beheko solairuan; ezin da aldatu beheko solairuaren lerrokadura ofiziala.
- Fatxada irekiaren aurpegia edo aurrealdea lau (4) metrokoa izan behar da gutxienez.
- Sakonera ezin da izan zabaleraren erdia baino gehiago.
- Argi patio edo barruko patioetako argientzat eta ikuspegi zuzentzat ezarritako gutxieneko baldintzak bete behar ditu.
- Lerrokaduratik atzeraemandako fatxadaren luzerak ez du fatxadaren luzera osoaren ehuneko hoge (20) gaindituko.

• Lurzati alboko mugatik edo mehelinetik lau (4) metrora egon behar da gutxienez.

b.2. Lurzati bereizian dagoen patio irekia.

• Erabilera publikoko espazio bati lotutako espazio libre batera eman behar du. Lau solairu arteko eraikinetan, espazio horiek hamar (10) metroko diametrodun zirkulua hartzeko modukoak izan behar dira; solairu gehiagoko eraikinetan, hamasei (16) metroko diametrodun zirkulua hartzeko modukoak.

• Fatxada irekiaren aurpegia edo zabalera sei (6) metrokoa izan behar da gutxienez.

• Sakonera ezin da izan zabaleraren erdia baino gehiago.

4. Mankomunatatuko patioa.

a) Patio mankomunatu da hainbat lurzatiarentzako barruko patio edo argi patio gisa eratzen dena, lurzati horiek mankomunitatea egiten dutenean patioaren gutxieneko neurrietara iristeko.

b) Mankomunitatea sortzeko, orube edo higiezinen gaineko zortasun eskubide erreala eratu beharko da, Jabetzaren Erregistroan inskribatutako eskritura publikoaren bitartez. Zortasun hori ezingo da Udalaren baimenik gabe ezereztu, ezta patioaren gutxieneko neurrietara iristeko osagarri horren beharra duen higiezinen batek dirauen bitartean ere.

c) Patio mankomunatuak beheko solairuan burdin hesi edo langa edo fabrikako elementu edo elementu opakuez bereizi ahal dira, gehienez metro bateko (1) altueraraino.

d) Artikulu honetako 2.b puntuan barruko patioetarako ezarritako baldintza guztiak beteko ditu, b.7 baldintza izan ezik.

1.5.1.28. artikulua. Hiri estetika babestea

1. Udalari dagokio hiriaren irudia eta natur paisaia defendatzea eta bi horien balorazioa eta hobekuntza sustatzea, bai eraikinei dago-kienz (eraikinak taldeka edo banaka hartuz), eta baita eraiki gabeko eremuei dago-kienz ere. Beraz, hiriaren irudian edo natur paisaian eraginaren bat izan dezaketen jarduerak udalaren irizpideen arabera-koak izan beharko dira.

2. Eraikuntza berriak dagoeneko badaudenetara eta horien ingurura egokiro egokitzen direla bermatzeko, hiri paisaian izandako eraginaren analisisa egiteko eskatu ahal izango da herria ikusten den tokietatik.

1.5.1.29. artikulua. Hesiak

1. Hiri lurzoruko eta hiritargarriko lurzatiak berrehun (200) cm-ko altueradun hesien edo hormen bidez itxi daitezke, honela:

a) Elementu itsuen bidez, - ageriko hormigoizkoak, harlangaitze-koak edo harrizko plakadunak- gehienez ere, laurogei (80) zentimetroko altuera izango dute eta, nahi izanez gero, gehienez berrehun (200) zentimetroko altuera duten babes gardenak, landarezko pantailak edo antzekoak erabil daitezke, tokiaren estetikarekin bat baldin badatoz.

Bestela, tokiko estetikarekin bat egiten duten harlangaitze-ko itxiturak erabili ahal dira, betiere, hoge (20) metrotik gorako fatxada opako jarraituak eratzen ez badira eta bi (2) metroko altuera gainditzen ez bada.

b) Itxituren errematerako ez da inolaz ere baimenduko pertsonai edo animaliei min eman diezaieketen elementurik edo herriaren irudia desitxuratzen dutenik.

b.1. Patio abierto sobre la alineación viaria o el patio de manzana.

• No podrá afectar a la planta baja, que deberá mantener la alineación oficial.

• La anchura o frente de fachada abierta deberá tener como mínimo cuatro (4) metros.

• La profundidad no superará la mitad de la anchura.

• Cumplirá las condiciones mínimas de luces y vistas rectas fijadas para los patios de luces o interiores.

• La proporción de longitud de fachada retranqueada de la alineación, respecto de la longitud total de fachada, no superará el veinte (20) por ciento.

• Se separará como mínimo cuatro (4) metros del lindero lateral de la parcela o la medianería.

b.2. Patio abierto en parcela independiente.

• Deberá dar sobre un espacio libre unido a un espacio de uso público, en los que pueda inscribirse un círculo de diez (10) metros de diámetro hasta cuatro plantas de edificación, y de dieciséis (16) metros de diámetro con alturas superiores.

• La anchura o frente de fachada abierta tendrá como mínimo seis (6) metros.

• La profundidad no superará la mitad de la anchura.

4. Patio mancomunado.

a) Se denominará patio mancomunado al construido como patio interior o de luces de varias parcelas que se constituyen en mancomunidad a fin de completar las dimensiones mínimas del patio.

b) La formación de la mancomunidad deberá establecerse constituyendo un derecho real de servidumbre sobre los solares o inmuebles, mediante escritura pública inscrita en el Registro de la Propiedad. Esta servidumbre no podrá cancelarse sin autorización del ayuntamiento ni en tanto subsista alguno de los inmuebles cuyos patios requieran este complemento para alcanzar la dimensión mínima.

c) Los patios mancomunados podrán separarse en planta baja mediante rejas o cancelas, o con elementos de fábrica u opacos, hasta una altura máxima de un (1) metro.

d) Cumplirá todas las condiciones establecidas para los patios interiores en el punto 2.b de este artículo, salvo la b.7.

Artículo 1.5.1.28. Salvaguarda de la estética urbana

